Urnietako udala

# 2018KO UZTAILAREN 24KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 24 DE JULIO DE 2018

**Akta zenbakia:** 08/2018
**Bilera data:** 2018-07-24
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00- 19:30
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mª Pilar Sarasola Bulman
Manuel Mayoz Ostolaza
Mikel Izagirre Rekondo
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos Gonzalez
Ivan Haro Marcos

**Ez dira bertaratu eta adierazi dute:**

Itziar Artola Bedia
Ixiar Martiarena Lizarazu

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2018ko uztailaren 24ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

**Aztergaiak:**

**1- 2018ko maiatzaren 29ko ohiko udalbatzarraren aktaren, eta 2018ko uztailaren 3ko ez-ohiko udalbatzarraren aktaren onarpena bidezko bada.**

**2.- Zerbitzu publikoak eman eta jarduerak egiteagatiko tasen zerga ordenantzaren aldaketa: etxez etxeko laguntza zerbitzuaren tasa.**

**Acta nº:** 08/2018
**Fecha:** 24-07-2018
**Tipo de reunión:** Pleno ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00- 19:30
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**

**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mª Pilar Sarasola Bulman
Manuel Mayoz Ostolaza
Mikel Izagirre Rekondo
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos González
Iván Haro Marcos

**No asisten y excusan su ausencia:**

Itziar Artola Bedia
Ixiar Martiarena Lizarazu

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 24 de julio de 2018, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**Orden del día:**

**1- Aprobar, si procede, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 29 de mayo de 2018 y de la sesión plenaria extraordinaria del 3 de julio.**

**2.- Modificación de la Ordenanza fiscal reguladora de tasas por la prestación de servicios y ejercicio de actividades: tasa del servicio de ayuda a domicilio.**

**3.- Aurkeztutako alegazioak ebaztea eta behin betikoz onartzea Ergoien industria-poligonoko estolderia obren finantzaketarako kontribuzio berezien ezarpena.**

**3.- Resolver las alegaciones presentadas y aprobar definitivamente la imposición de contribuciones especiales para la financiación de la obra de alcantarillado correspondiente al polígono Ergoien.**

**4.- Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.**

**4.- Modificación de crédito: transferencia de crédito.**

**5.- Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria.**

**5.- Modificación de crédito: créditos adicionales.**

**6.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketarako hitzarmena onartzea.**

**6.- Aprobar el Convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.**

**7.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen Udal arautegiari hasiera onarpena ematea.**

**7.- Aprobar inicialmente el Reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda a Domicilio.**

**8.- Alkatetza dekretuen berri ematea.**

**8.- Dar cuenta de los decretos de alcaldía.**

**9.- Galdera-eskariak.**

**9.- Ruegos y preguntas.**

1**- 2018ko maiatzaren 29ko ohiko udalbatzarraren aktaren, eta 2018ko uztailaren 3ko ez-ohiko udalbatzarraren aktaren onarpena bidezko bada.**

2018ko maiatzaren 29ko ohiko udalbatzarraren akta eta uztailaren 3ko ez-ohiko udalbatzarraren aktak onartzea proposatzen da.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez onartu ditu 2018ko maiatzaren 29ko ohiko udalbatzarraren akta eta uztailaren 3ko ez-ohiko udalbatzarraren akta.

**1- Aprobar, si procede, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 29 de mayo de 2018 y de la sesión plenaria extraordinaria del 3 de julio.**

Se propone la aprobación de las actas de la sesión plenaria ordinaria del 29 de mayo de 2018 y de la sesión plenaria extraordinaria del 3 de julio.

El Pleno ha aprobado por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 29 de mayo y de la sesión plenaria extraordinaria del 3 de julio.
.

**2.- Zerbitzu publikoak eman eta jarduerak egiteagatiko tasen zerga ordenantzaren aldaketa: etxez etxeko laguntza zerbitzuaren tasa.**

**2.- Modificación de la Ordenanza fiscal reguladora de tasas por la prestación de servicios y ejercicio de actividades: tasa del servicio de ayuda a domicilio.**

Consuelo Frutos Urnietako Talde Sozialistaren bozeramaileak hartzen du hitza adierazteko gai hau jorratu zenean batzorde informatzailean abstenitu egin zirela, baino gaurko egunean puntu honen alde bozkatuko dutela.

Toma la palabra Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista para manifestar que en la comisión informativa donde se trató este tema se abstuvieron, pero que hoy van a votar a favor en este punto.

Urnietako udala

# 2018KO UZTAILAREN 24KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 24 DE JULIO DE 2018

Mikel Izagirre Urnietako EH-Bildu Taldeko zinegotziak hartzen du hitza adierazteko batzorde informatzailean puntu honen aurka bozkatu zutela, baina gaurko bozketan alde bozkatuko dutela, beti ere urtean bukaeran ematen diren emaitzekin baldintzatuta. Hau da, Foru Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmen horrek jarriko dituen limitazioekin ez ditzala limitatu gero herrian eman behar diren dirulaguntzak.

Mikel Pagola alkateak hartzen du hitza adierazteko Foru Aldundiarekin gai honen inguruan hitzarmen berri bat sinatuko dela, eta bertan jasotzen diren aldaketak Udal honetako Etxez-etxeko arautegiaren barruan sartu beharko direla, zehazki Foru Aldundiak 2018rako etxez-etxeko zerbitzua kudeatzeko baldintza batzuk, hobekuntza esparru batzuk, eta hauen baitan azkeneko lau hilabetean Urnietako Udalak jasoko lukeen diru kopurua bermatuko litzakela, baldin eta hobekuntza esparru horiek sartzen badira. Hauetako batek, diru kontuei eragiten duela, ain zuzen ere, ezartzen direla gehienekoz ordainduko diren topeak, eta hor minorazio bat eman dela, 2017. urterarte erabiltzaileek gehienekoz ia 19€/orduko kopurua ordaintzen zutela, aurten 15 eurokoa izango delarik astean zehar, eta 22€ asteburuetan.

Toma la palabra Mikel Izagirre concejal del Grupo Municipal EH-Bildu para manifestar que en la comisión informativa votaron en contra de este punto, pero que hoy van a votar a favor en este punto, condicionado a los resultados que se den a fin de año. Esto es, que esperan que las limitaciones impuestas por el convenio que se va a firmar con la Diputación Foral de Gipuzkoa, no limite las ayudas que se vayan a conceder desde el Ayuntamiento.

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola para manifestar que en relación a este tema se va a firmar un nuevo convenio con la Diputación Foral, y que las modificaciones que se recojan en el mismo deberán reflejarse en la Ordenanza Municipal del Servicio de Ayuda Domiciliaria, concretamente unas condiciones que regularán este servicio para el 2018, algunas mejoras, entre ellas que se asegura el dinero que recibirá el Ayuntamiento de Urnieta por la prestación de este servicio siempre que se contemplen en nuestra normativa las mejoras implantadas. Una de ellas afectará en el aspecto económico, ya que se establecen unos topes de pago, en los que se ha producido una minoración del gasto: hasta el 2017 los usuarios pagaban un máximo de 19 €/hora, y ahora será de 15 €/hora durante la semana, y de 22 €/hora el fin de semana.

1. **Aurrekariak.**

I. Udalbatzarrak 2006ko martxoaren 20an onartutako Etxez Etxeko laguntza zerbitzuaren Araudia.

II. Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urnietako Udalaren arteko 2014ko azaroaren 27ko hitzarmena.

III. EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordeak 2017ko uztailaren 7an egindako bileran Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalaren arteko finantza-fluxuen banaketa berri bat egiteko hartutako erabakia, 2017-2019 aldirako etxeko laguntzaren zerbitzuaren kofinantziazioari buruzkoa.

IV. 2017ko martxoaren 20an Diputatuen Kontseiluak onartutako hitzarmen eredua. Hitzarmen honek Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantziazio modelo berri bat ezartzen du.

1. **Antecedentes.**

I. Reglamento regulador del servicio de ayuda a domicilio aprobado por el Pleno el 20 de marzo de 2006.

II. Convenio firmado el 27 de noviembre de 2014 entre el Ayuntamiento de Urnieta y la Diputación Foral de Gipuzkoa para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.

III. Acuerdo adoptado por la Comisión territorial de Gipuzkoa de EUDEL, en reunión celebrada el día 7 de julio de 2017, y en relación con una nueva distribución de flujos financieros entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los Ayuntamientos del Territorio Histórico sobre la cofinanciación del servicio de ayuda a domicilio en el período 2017-2019.

IV. Modelo de Convenio aprobado el 20 de marzo de 2017 por el Consejo de Diputados Este Convenio establece un nuevo modelo de financiación del servicio de ayuda a domicilio.

V. 2018ko uztailaren 16ko Kontu Hartzailearen txosten tekniko-ekonomikoa, Zerbitzu publikoak eman eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren 11. Atalaren (etxez etxeko laguntza zerbitzuaren tasa) aldaketari buruzkoa.

V. Informe técnico-económico de la interventora municipal de 16 de julio de 2018 sobre la modificación del apartado 11 (tasa del servicio de ayuda a domicilio) de la Ordenanza fiscal reguladora de las Tasas por prestación de Servicios Públicos y realización de actividades.

**2. Legedi aplikagarria**

**2. Legislación aplicable**

I. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena; 4.1.a), 22.2.d), 49 eta 70.2. artikuluak.

II. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituena; 15-18 eta 20-27 artikuluak.

I. Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del régimen local: artículos 4.1.a), 22.2.d), 49 y 70.2.

II. Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa: artículos 15-18 y 20-27.

Aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2018ko uztailaren 19an egindako Antolakuntza batzorde informatiboaren aldeko irizpena.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengoa-** Zerbitzu publikoak eman eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onarpena ematea onartzea.

**Bigarrena.-** 30 lanegunez iragarki hau GAO-n argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita jendaurreko informazio-aldian jartzea interesdunek espedientea azter dezaten eta bidezkoak derizkioten erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Espedientea Udaleko idazkaritzan dago 08:30etik 14:30etara.

Erreklamazioa aurkezten zaion organoa: Udalbatza.

De conformidad con la citada normativa la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Visto el dictamen favorable emitido el 19 de julio del 2018 por la Comisión Informativa de Organización.

El Pleno por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza fiscal reguladora de las Tasas por prestación de Servicios Públicos y realización de actividades.

**Segundo.-** Someter el expediente a información pública durante un plazo de 30 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que las personas interesadas examinen el expediente y presenten las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes.

El expediente se encuentra en la Secretaría del Ayuntamiento en horario de 8:30 a 14:30 horas.

Órgano ante el que pueden presentarse reclamaciones y sugerencias: Pleno.

Adierazitako jendaurreko informazio-aldia igaro ondoren ez balitz aurkeztu erreklamazio edo oharrik, behin betiko onartutzat joko da aipatutako behin behineko akordioa, erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación o sugerencia alguna, se tendrá por adoptado definitivamente el acuerdo hasta entonces provisional, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**3.- Aurkeztutako alegazioak ebaztea eta behin betikoz onartzea Ergoien industria-poligonoko estolderia obren finantzaketarako kontribuzio berezien ezarpena.**

**3.- Resolver las alegaciones presentadas y aprobar definitivamente la imposición de contribuciones especiales para la financiación de la obra de alcantarillado correspondiente al polígono Ergoien.**

1. **Aurrekariak**

- 2018ko martxoaren 6an, Osoko Bilkuran behin behinekoz erabaki zen kontribuzio berezien ezarpena eta antolamendu onartzea, Ergoien industria poligonoko estolderia lanak finantzatzeko.
- 2018ko maiatzaren 29an, Osoko Bilkuran behin behinekoz erabaki zen martxoaren 6an hasierako onarpena emateko hartutako erabakia bertan behera uztea eta berriz ere onartzea kontribuzio berezien ezarpena eta antolamendua, Ergoien industria poligonoko estolderia lanak finantzatzeko.
- Maiatzaren 29an Luis Santos Bedoya-k (NAN: 15949755Z) alegazio bat aurkeztu zuen, Almacenes Industriales Lasarte S.A.-ren izenean. IFZ: A20098059.
- 2018ko ekainaren 5ean, Behin behikoe hitzarmena osorik agertu eta argitaratu zen Erakundeko iragarki taulan eta GAOko 107 zenbakian, 30 egunez, epealdi horretan alegazio berririk jaso gabe.
- 2018ko uztailaren 16an, udal kontu-hartzaileak txosten bat egin zuen Luis Santos Bedoyak (NAN: 15949755Z) aurkeztutako alegazioaren inguruan, Almacenes Industriales Lasarte S.A.-ren ordezkaritzan IFZ: A20098059 ez onartzea proposatuz.

1. **Antecedentes**

- Con fecha 6 de marzo de 2018, se acordó provisionalmente por el Pleno de la Corporación aprobar la imposición y ordenación de contribuciones especiales para financiar la obra de alcantarillado del polígono industrial Ergoien.
- Con fecha 29 de mayo de 2018, se acordó provisionalmente por el Pleno de la Corporación dejar sin efecto el acuerdo de aprobación inicial del 6 de marzo y aprobar de nuevo inicialmente la imposición y ordenación de contribuciones especiales para financiar la obra de alcantarillado del polígono industrial Ergoien.
- Con fecha de 29 de mayo se presentó una alegación por parte de Luis Santos Bedoya DNI 15949755Z, en representación de Almacenes Industriales Lasarte S.A. CIF: A20098059.
- Con fecha 5 de junio de 2018, se expuso y publicó el Acuerdo provisional íntegro en el tablón de anuncios de la Entidad y en el BOG nº 107 durante 30 días, sin haberse recibido nuevas alegaciones durante este período.
- Con fecha 16 de julio de 2018 se emite por la Interventora municipal informe sobre la alegación presentada por Luis Santos Bedoya DNI 15949755Z, en representación de Almacenes Industriales Lasarte S.A. CIF: A20098059 proponiendo su desestimación.

**2. Legedi aplikagarria**

- Uztailaren 5eko Gipuzkoako Toki Ogasunen 11/1989 Foru Arauko 16 eta 28-38 artikuluak.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 16 eta 35 artikuluak.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22, 2 eta 108. artikuluak.
- Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 129 artikulua.
- Urnietako udalerrian Uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzen duen udal ordenantza.

**2. Legislación aplicable**

- Artículos 16 y 28-38 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.
- Artículos 16 y 35 de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Artículos 22, 2 y 108 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
- Artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ordenanza Municipal Reguladora de la Gestión del Ciclo Integral del Agua en el Término Municipal de Urnieta.

Ikusita 2018ko uztailaren 19an egindako Antolakuntza batzorde informatiboaren aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido el 19 de julio del 2018 por la Comisión Informativa de Organización.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez hartu du honako

El Pleno por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

**ERABAKIA:**

**Lehenengoa.-** 2018ko maiatzaren 29an 15949755Z NAN zenbakidun Luis Santos Bedoyak Almacenes Industriales Lasarte S.A.ren izenean aurkeztutako alegazioak 2018ko uztailaren 16ko kontu hartzailearen txostenean adierazitako arrazoiengatik ez onartzea. Txosten horren kopia bidaliko da erabaki honen jakinarazpenarekin batera.

**Bigarrena.-** Ergoien industria-poligonoko estolderia obraren finantzaketarako kontribuzio berezien ezarpena behin-betikoz onartzea. Honen egite ezargarria obrak eragiten dien ondasunen balio gehikuntza izango da.

**Hirugarrena.-** Kontribuzioaren zehaztapena eta antolamendua egitea honen arabera:

- Obraren aurrikusitako kostua 1.014.729,57 €takoa da eta hortik udalak jasandako kostua 169.489,40€.
- Onuradunen artean banatu beharreko kantitatea 152.500€ dira, udalak jasandako kostuaren

**ACUERDO:**

**Primero.-** Desestimar las alegaciones presentadas el 29 de mayo de 2018 por Luis Santos Bedoya DNI 15949755Z, en representación de Almacenes Industriales Lasarte S.A. por los motivos expresados en el informe de la Interventora de fecha 16 de julio de 2018, del cual se enviará copia junto con la notificación de este acuerdo.

**Segundo.-** Aprobar definitivamente la imposición de contribuciones especiales para la financiación de la obra de alcantarillado correspondiente al polígono Ergoien. Constituye el hecho imponible de las contribuciones especiales la obtención del aumento de valor de los bienes afectados por la obra.

**Tercero.-** Determinar y ordenar la contribución en las siguientes condiciones:

- El coste estimado de la mencionada obra asciende a 1.014.729,57 de los cuales 169.489,40 € serán asumidos por el Ayuntamiento de Urnieta.
- La cantidad a repartir entre los beneficiarios se establece en 152.500 euros, es decir, en el

%89,9a. Aurrekontuan jarritako obren guztizko kostuak aurrikuspen izaera edukiko du. Benetako kostua aurrikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa balitz, dagokion kuoten kalkulurako hura hartuko litzateke.

- Banaketa ondasunen balio katastralaren arabera egingo da.

**Laugarrena.-** Ergoien industria-poligonoko obraren ondorioz, espedienteko I eta II eranskinetan azaltzen den, onuradun izango direnen zerrenda onartzea eta bakoitzak udalari ordaindu behar dion kantitatea ezartzea.

**Bosgarrena.-** Onuradun izango direnei onartutako kontribuzioaren emaitza den kuota banaka jakinaraztea.

**Seigarrena.-** Erabaki hau 15949755Z NAN zenbakidun Luis Santos Bedoyari, Almacenes Industriales Lasarte S.A.ren ordezkaritzan, jakinaraztea.

**Zazpigarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

89,9% del coste asumido por el Ayuntamiento. El coste total presupuestado de las obras tendrá carácter de mera previsión. Si el coste real fuese mayor o menor que el previsto, se tomará aquél a efectos del cálculo de las cuotas correspondientes.

- El reparto de la base imponible se efectuará según el valor catastral de las fincas afectadas por la obra.

**Cuarto.-** Aprobar definitivamente la lista de beneficiarios afectados por la obra del polígono Ergoien que figura en el Anexo I y II del expediente, y establecer el importe que cada uno de ellos debe abonar al Ayuntamiento.

**Quinto.-** Notificar de forma individualizada a los beneficiarios de la obra la cuota que resulta de la contribución aprobada.

**Sexto.-** Notificar este acuerdo a Luis Santos Bedoya DNI 15949755Z, en representación de Almacenes Industriales Lasarte S.A..

**Séptimo.-** Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**4.- Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.**

Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jo denez gero, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan jasotakoaren arabera
.

Ikusik kreditu aldaketaren espedientea, 05/2018 zenbakiarekin identifikatutako kreditu transferentzien bitartez, Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuari eragiten diona, 29.100 €takoa.

Ikusirik bitarteko kontu-hartzailek igorritako txostenaren arabera, espediente hori aplikagarri zion araudiari doitzen zaiola, zehazki, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 29. artikuluari eta hurrengoei, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuari buruzkoa eta Urteko Aurrekontu Gauzapenaren Udal arauari.

**4.- Modificación de crédito: transferencia de crédito.**

Estimándose necesario efectuar transferencias de crédito entre partidas presupuestarias de gastos del vigente presupuesto de este Ayuntamiento, al amparo de lo previsto en el art. 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto el expediente de modificación de créditos, mediante transferencia de crédito identificado con el nº 05/2018 que afecta al Presupuesto vigente de este Ayuntamiento por importe de 29.100 €.

Visto que según el informe emitido por la Interventora de fecha 27 de abril de 2018 dicho expediente se ajusta a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecido por el art. 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria Anual.

Aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2018ko uztailaren 19an egindako Antolakuntza batzorde informatiboaren aldeko irizpena.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez hartu du honako

**ERABAKIA:**

**Lehenengoa.-** Kreditu aldaketako espedientea onartzea, **05/2018** zenbakiarekin identifikatutako kreditu transferentziaren bidez, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen direnak, Udal honetan indarrean dagoen Aurrekontuari eragiten diona eta taula honen arabera.

De conformidad con la citada normativa la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Visto el dictamen favorable emitido el 19 de julio del 2018 por la Comisión Informativa de Organización.

El Pleno por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar el expediente de transferencia de créditos, mediante habilitación de crédito identificado con el nº **05/2018** que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este ayuntamiento y conforme al siguiente cuadro:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)/Partidas de gastos cuyos créditos se transfieren (bajas)

| Partida | Izena<br>Denominación | Hasierako Kreditua<br>Crédito Inicial | Murrizketa<br>Minoración | Amaierako kreditua/Crédito resultante |
|---|---|---|---|---|
| 1 0410.623.333.10.03<br>2018 | SAROBEKO INBERTSIOAK<br>/ INVERSIONES SAROBE | 183.000,00 | 29.100,00 | 153.900,00 |
| GUZTIRA/TOTAL ... | | 183.000,00 | 29.100,00 | 153.900,00 |

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)/Partidas de gastos cuyos créditos se incrementan (altas)

| Partida | Izena<br>Denominación | Hasierako Kreditua<br>Crédito Inicial | Gehikuntza<br>Aumento | Amaierako kreditua/Crédito resultante |
|---|---|---|---|---|
| 1 0300.120.150.00.00<br>2018 | HIRIGINTZA: OINARRIKO ORDAINKETAK / URBANISMO: RETRIBUCIONES BASICAS | 69.800,00 | 6.600,00 | 76.400,00 |
| 1 0300.121.150.00.01<br>2018 | HIRIGINTZA: DESTINO OSAGARRIA / URBANISMO: COMPLEMENTO DESTINO | 32.500,00 | 3.800,00 | 36.300,00 |
| 1 0300.121.150.00.02<br>2018 | HIRIGINTZA:BERARIAZKO OSAGARRIA / URBANISMO: COMPLEMENTO ESPECIFICO | 97.400,00 | 11.700,00 | 109.100,00 |
| 1 0300.160.150.00.01<br>2018 | HIRIGINTZA: GIZARTE SEGURANTZA / URBANISMO: SEGURIDAD SOCIAL | 50.200,00 | 7.000,00 | 57.200,00 |
| GUZTIRA/TOTAL | | 249.900,00 | 29.100,00 | 279.000,00 |

**Bigarrengoa.-** Ekintza hau sendoa eta exekutiboa izanik, geroko izapideen beharrik gabe, Funtsen

**Segundo.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los

Kontu-hartzailetza zerbitzuen bidez, bidezkoa da Kontabilitatean onartutako aldaketa islatzea, gastuetan zein diru-sarreretan, berehalako eraginarekin.

servicios de Intervención de Fondos se refleje en la Contabilidad la modificación aprobada tanto en gastos como en ingresos, con efectos inmediatos.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Kontu-hartzailetza sailari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**Tercero.-** Trasladar este acuerdo al área de Intervención a los efectos oportunos.

**5.- Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria.**

**5.- Modificación de crédito: créditos adicionales.**

Puntu honen aurkezpenean, Mikel Pagola alkateak adierazten du Estatuko Aurrekontuaren Legean jasotako langileen soldata igoera egin ahal izateko egiten dela kreditu aldateka hau.

En la presentación de este punto el alcalde Mikel Pagola explica que con esta modificación de crédito se podrá llevar a cabo la subida de sueldos de los trabajadores reconocida en la Ley de Presupuestos del Estado.

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu egitea, ondoko proposamenean adierazten den moduan. Ekitaldi honetako aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Beraz, premiazkoa da kredituak aldatzeko espedienteari hasiera ematea, proposamenean zehazten den kopuruan kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko, eta, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan jasotakoaren arabera.

Con objeto de atender las necesidades y obligaciones de los respectivos servicios municipales, se precisa la realización de los gastos relacionados en la propuesta que se adjunta. Sin embargo, a la vista de la ejecución del presupuesto de este ejercicio, se constata la insuficiencia del crédito necesario para hacer frente a dichos gastos. Por todo ello, procede iniciar expediente de modificación de créditos para crear, o en su caso incrementar, créditos en la cuantía especificada en dicha propuesta, al amparo de lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Ikusik kreditu aldaketaren espedientea, 06/2018 zenbakiarekin identifikatutako kreditu gehigarrien bitartez, Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuari eragiten diona, 56.400 €takoa.

Visto el expediente de modificación de créditos, mediante créditos adicionales identificado con el nº 06/2018 que afecta al Presupuesto vigente de este Ayuntamiento por importe de 56.400 €.

Ikusirik bitarteko kontu-hartzailek igorritako txostenaren arabera, espediente hori aplikagarri zion araudiari doitzen zaiola, zehazki, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluari eta hurrengoei, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuari buruzkoa eta Urteko Aurrekontu Gauzapenaren Udal arauari.

Visto que según el informe emitido por la Interventora de fecha 14 de marzo de 2018 dicho expediente se ajusta a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecido por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria Anual.

Aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

De conformidad con la citada normativa la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Ikusita 2018ko uztailaren 19an egindako Antolakuntza batzorde informatiboaren aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido el 19 de julio del 2018 por la Comisión Informativa de Organización.

# 2018KO UZTAILAREN 24KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 24 DE JULIO DE 2018

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez hartu du honako

El Pleno por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

**ERABAKIA:**

**ACUERDO:**

**Lehenengoa.-** 06/2018 zenbakidun kreditu aldaketaren espedienteari hasiera ematea, kreditu gehigarrien modalitatean, 2018ari dagokion Udaleko Aurrekontuaren barruan.

**Primero.-** Aprobar inicialmente el expediente de Modificación de Créditos Nº 06/2018, en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente a 2018.

GASTUAK/GASTOS

| **Partida** | **Azalpena** | **Kredituak** | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak** | **Aldaketak** | **Behin betikoak** |
| 1 0210.120.920.10.00 2018 | IDAZKARITZA: OINARRIZKO ORDAINKETAK / SECRETARIA: RETRIBUCIONES BASICAS | 46.600,00 | 20.000,00 | 66.600,00 |
| 1 0210.120.925.00.00 2018 | ADMI. OROKORRA: OINARRIZKO ORDAINKETAK / ADMON GENERAL: RETRIBUCIONES BASICAS | 52.500,00 | 10.000,00 | 62.500,00 |
| 1 0210.121.920.10.02 2018 | IDAZKARITZA:BERARIAZKO OSAGARRIA / SECRETARIA: COMPLEMENTO ESPECÍFICO | 70.500,00 | 10.000,00 | 80.500,00 |
| 1 0210.121.925.00.02 2018 | ADMI. OROKORRA: BERARIAZKO OSAGARRIA / ADMON GENERAL: COMPLEMENTO ESPECÍFICO | 83.400,00 | 16.400,00 | 99.800,00 |
| **GUZTIRA** | | **253.000,00** | **56.400,00** | **309.400,00** |

SARRERAK/INGRESOS

| | **Partida** | **Azalpena** | **Zenbatekoa** |
|---|---|---|---|
| | 2 0210.870.000.00.01 2017 | DIRUZAINTZA GERAKINA / REMANENTE DE TESORERIA | 56.400 |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | | **56.400** |

**Bigarrengoa.-** 2003ko abenduaren 19ko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko 21/2003 Foru Arauko 34an xedatutako betez, jendaurrean jarriko da, honako arau hauek jarraituz:

**Segundo.-** En cumplimiento de lo dispuesto en el 34 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales, de 19 de diciembre de 2003, se somete a información pública conforme a las siguientes reglas:

Non dagoen: Kontu hartzailetza

Lugar donde se encuentra: Intervención

Hori aztertzeko epea, eta hala badagokio, erreklamazioak aurkeztekoa: hamabost egun baliodun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jarri eta hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita.

Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones: quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean BERTAN, 7:30etatik 14:30etara edo telematikoki www.urnieta.eus helbidean. Halaber, Herri-administrazioen administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipa tzen dituen lekuetanere aurkez daitezke

Oficina de presentación: En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento BERTAN, en horario de 7:30 a 14:30 o telemáticamente en www.urnieta.eus. Así mismo podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Zein organoren aurrean egiten den erreklamazioa: Udalbatzarra.

Órgano ante el que se reclama: Ayuntamiento Pleno

Adierazitako informazio epea igarota erreklamaziorik edo ohartarazpenik aurkeztu ez balitz, behin betiko onartutzat emango da kreditu aldaketarako espedientea, erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el mencionado expediente de modificación de crédito, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**Hirugarrengoa.-** Erabaki hau Kontu-hartzailetza sailera igortzea, dagozkion eraginetarako.

**Tercero.-** Trasladar este acuerdo al área de Intervención a los efectos oportunos.

**6.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketarako hitzarmena onartzea.**

**6.- Aprobar el Convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.**

Mikel Izagirre Urnietako EH-Bildu udal taldearen zinegotziak hartzen du hitza adierazteko murrizketarako hitzarmen bat dela. Badakitela Udalaren eskumena ez dela dirulaguntza hau kudeatzea, ezta Foru Aldundiarena, baizik eta Eusko Jaurlaritzarena.

Toma la palabra Mikel Izagirre concejal del Grupo Municipal EH-Bildu para manifestar que es un convenio para el recorte. Que saben que la gestión de este servicio no es una competencia de este Ayuntamiento, pero tampoco de la Diputación Foral, sino del Gobierno Vasco.

Udalak lehen baino esfortzu gehiago egin beharko duela bere gain hartuz teorian berari ez dagokion eskumen hau kudeatzeko, eta aldi berean Foru Aldundiak ere murrizketa bat egingo duela emandako diruarekin, bere eskumena ez delako.

Que el Ayuntamiento tendrá que hacer un esfuerzo asumiendo una competencia que en teoría no le corresponde, a lo que hay que añadirle el recorte de presupuesto que va a realizar la Diputación Foral porque no es su competencia.

Gaineratzen du, dirulaguntzak ematerako garaian, prentsan azaltzen direla argitalpenak letra haundiekin, baino horrelako murrizketak ezartzen direnean ez dela ezer komentatzen, batez ere, murrizketa hauek behar gehien duten pertsonei erangingo dietenean. Jakin nahiko luke ea nola mamitzen den “pertsonak lehenengo” esaten den esaldi hori.

Añade que, las noticias de concesión de subvenciones aparecen habitualmente en la prensa en letras grandes, pero que nadie habla de las reducciones de presupuesto en servicios como este, que afectará sobre todo a personas que más lo necesitan. Le gustaría saber como se interpreta en este caso la frase “las personas primero”.

Honen ondorioz ezezkoa bozkatuko dutela hitzarmen honi, eta gaineratzen du udalen legea egin dela, non eskumenak ematen zaizkie udalei, baina aurrekonturik ez zaie ematen eskumen horiek kudeatu eta gauzatzeko.

Por todo ello, votarán en contra de este convenio, y añade en la Ley Municipal aprobada por Eudel, se establecen las competencias de los municipios pero no la asignación presupuestaria necesaria para poder gestionar dichas competencias.

Mikel Pagola alkateak hartzen du hitza adierazteko 2. 6. eta 7. puntuak gai berdinari lotuta daudela, eta berarentzako pertsonek lehentasuna dutela, eta herritarrek ez dutela lehengo urtean adina ordainduko, orduko gutxiago ordainduko bait dute, gehienez ordaindu beharko duten kopurua murriztu egingo bait da. Egia dela lehen Aldunditik jasotzen zen diru partida gutxitu egiten dela, eta honen ondorioz Udalak egin beharreko ekarpena igo egin beharko dela.

El alcalde Mikel Pagola toma la palabra para manifestar que los puntos 2, 6 y 7 están relacionados con el mismo tema, y que para él las personas tienen preferencia, por eso los ciudadanos no pagarán tanto por este servicio como el año pasado, ya que pagarán menos por hora de servicio porque se reducirá el máximo que deberán pagar. Reconoce que la partida que se recibirá desde la Diputación Foral para este servicio será menor, y que por tanto el Ayuntamiento deberá hacer una aportación mayor.

Baita ere azaldu nahi du, hau dena zor-karteren dekretuan egin zen banaketatik datorrela, eta honen arabera Euskadiko hiru toki erakundeen artean, Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak, eskuduntzak banatu egin behar izan zituzten. Gutxi edo gehiago diru hori banatu egin dela.

También quiere explicar que todo esto tiene su origen en el reparto que se ha hecho con el Decreto de la cartera de deuda, por el que se repartían las competencias entre las tres entidades territoriales de Euskadi, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral y los Ayuntamiento. Más o menos ese dinero se ha repartido.

Ados dagoela Mikel Izagirrez esandakoarekin, urte bukaeran ikerketa bat egin beharko litzatekela, azkeneko urteetan zerbitzu honek izandako gutxitzearen zergatia aztertzeko. Eta kasu honetan, diruak ez lukeela arrazoia izan beharko, zeren zerbitzua erabiltzen duten herritarrei kostua gutxituko zaie.

Está de acuerdo con lo que ha dicho Mikel Izagirre en que a fin de año habrá que hacer un estudio para analizar si ha habido un descenso en el uso del servicio. Pero que el dinero no debería ser la causa, ya que el coste del servicio para los usuarios va a ser menor.

Mikel Izagirre Urnietako EH-Bildu udal taldearen zinegotziak hartzen du hitza adierazteko berak ez duela Udalari errurik erantsi, baizik eta Udalak gehiago ordaindu beharko duela zerbitzu honengatik. Eusko Jaurlaritzak egin duen Zerbitzu Karta horretan, eskuduntzak banatu dituela, baino aurrekontua murriztu egin duela, eta honen ondorioz Udalak jarri beharko duela falta den dirua.

Toma la palabra Mikel Izagirre concejal del Grupo Municipal EH-Bildu para manifestar que en su intervención no está culpando al Ayuntamiento, sino que el Ayuntamiento tendrá que pagar más por este servicio. Que en la Carta de Servicios que ha hecho el Gobierno Vasco, ha repartido las competencias, pero que ha reducido las partidas asignadas para algunos servicios, como es el caso, y que por tanto el Ayuntamiento tendrá que poner el dinero que falte.

Mikel Pagola alkateak erantzuten du ulertzen duela bere azalpena, baino hiru toki erakunde horien artean ardurak banatu egin direla, hala nola, adibidez udal egoitzak kudeatzen zuten herriek onuradun gertatu dira, zeren zerbitzu hori beste erakunde batek hartu bait du, eta horren gastuak ez ditu Udalak pairatu behar. Nahiz eta gaur egun Urnieta ez egon kasu horretan, funtzio horien banaketak, zerbitzu

El alcalde Mikel Pagola toma la palabra para manifestar que entiende su postura, pero que se han repartido las funciones entre las tres entidades territoriales, y que por ejemplo aquellos municipios que gestionaban residencias de ancianos han resultado beneficiados, ya que esa competencia ha sido asumida por otra administración, y no tendrán que soportar esos gastos. A pesar de que Urnieta no

batzuetan onurak ekarri ditu eta beste batzuetan ez hainbeste onurak, eta Urnietako Udalak etorkizunean egoitza bat edukiko balu, Udalak ez lituzke zerbitzu horren gastuak ordainduko.

está en ese caso, el reparto de esas funciones ha traído beneficios para algunos y no tanto para otros, pero si el municipio de Urnieta contara en el futuro con una residencia de ancianos, el Ayuntamiento no tendría que hacerse cargo de los gastos generados por la misma.

1. **Aurrekariak**

I. Udalbatzarrak 2006ko martxoaren 20an onartutako Etxez Etxeko laguntza zerbitzuaren Araudia.

II. Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urnietako Udalaren arteko 2014ko azaroaren 27ko hitzarmena.

III. EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordeak 2017ko uztailaren 7an egindako bileran Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalaren arteko finantza-fluxuen banaketa berri bat egiteko hartutako erabakia, 2017-2019 aldirako etxeko laguntzaren zerbitzuaren kofinantziazioari buruzkoa.

IV. 2017ko martxoaren 20an Diputatuen Kontseiluak onartutako hitzarmen eredua. Hitzarmen honek Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantzaketa modelo berri bat ezartzen du.

V. Hitzarmen ereduaren 4. Klausula: “Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu beharko du Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.

VI. Alkatetzaren probidentzia bitartez espedienteari hasiera eman zaio, hitzarmenaren memoria justifikagarria espedientean barneratu da, Idazkariak aplikagarria den prozedurari buruzko Txosten juridikoa egin du, eta Kontu hartzaileak ere txostena egin du.

1. **Antecedentes**

I. Reglamento del servicio de ayuda a domicilio aprobado por el Pleno el 20 de marzo de 2006.

II. Convenio del 27 de noviembre de 2014 entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urnieta para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.

III. Resolución tomada en la reunión celebrada el 7 de julio de 2017 por la Comisión de Territorio de Gipuzkoa de EUDEL para hacer una nueva distribución de flujos de financiación entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sobre la cofinanciación de la ayuda a domicilio para el período 2017-2019.

IV. Modelo de convenio aprobado por el Consejo de Diputados del 20 de marzo de 2017. Este convenio establece un nuevo modelo de financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

V. La cláusula 4ª del modelo de convenio establece que “el Ayuntamiento deberá adecuar el vigente Reglamento municipal regulador del servicio de ayuda a domicilio a la distribución competencia de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales”.

VI. Mediante providencia de Alcaldía se ha incoado el expediente, se ha incluido en el expediente la memoria justificativa del convenio, el Secretario ha realizado el informe jurídico sobre el procedimiento aplicable y la Interventora también ha hecho un informe.

2. **Legedi aplikagarria**

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 6, 22, 55 eta 57 artikuluak.
- Sektore Publikoaren Araubide

2. **Legislación aplicable**

- Los artículos 6, 22, 55 y 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-.
- Los artículos 47 a 53 de la Ley 40/2015,

Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 47 eta 53. artikuluak.

- Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 legea.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 17.10 eta 100. artikuluak.

Aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2018ko uztailaren 19an egindako Herritargoko batzorde informatiboaren aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 9.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.

Aurka: 2 (URNIETAKO EH BILDU).

Abstentzioak: 0.

Osoko Bilkurak, beharrezko legezko gehiengoarekin ondorengoa

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.-** Urnietako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean sinatzeko etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko hitzarmenaren testua onartzea. (I. Eranskina).

**Bigarrena.-** Alkate-Lehendakaria aipatutako hitzarmena sinatzeko ahalmentzea.

